

# BESTELAKO XEDAPENAK

## OSASUN SAILA

### 3557

*163/2024 DEKRETUA, uztailaren 16koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoaren Administrazio Kontseiluaren osaera nominala berritzen duena.*

Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legeak, 22. artikuluan, hau ezartzen du:

«1.– Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua ente publikoaren zuzendaritza-organoak bi dira: administrazio-kontseilua eta presidentea; presidente-kargua sanitarean eskumendun den saileko sailburuak beteko du.

2.– Administrazio-kontseilua hauek osatuko dute: presidentek eta, gehienez ere, beste bost kidek, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren ordezkari direnak. Kontseiluaren aginpideak hauek dira: enteari atxikitako baliabideen planifikazio estrategikoa, jarduketan zuzendaritza, gestioaren goi-kontrola eta entearen menpeko zerbitzu sanitarioak emango dituzten sarearen muturreko erakundeak eratzekeo prozesua eta intentsitatea gidatu eta bultzatzeko beharrezko ahalmenak, nortasun juridikoa emateko ahalmena izan ezik.

3.– Araudiz, hain zuzen estatutu sozialen bidez, entearen administrazio eta gestio korporatiboko erakunde zentrala sortuko da, Administrazio-kontseiluari laguntzeko egitura zuzentzaile gisa. Zuzendaritza-organoen akordioak betetzeko, besteak beste, aginpide hauek izango ditu: entearen menpeko zerbitzu sanitarioak emango dituzten erakunde guztiekiko ezarriko diren lankidetzak, kontrola, koordinazio estrategikoa eta gestio-aginte zentralizatuak.»

Bestalde, Osakidetza Euskal Osasun Zerbitzua ente publikoaren Estatutu Sozialak onartzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuaren 8.2 artikuluan xedatzen denez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren ordezkotza egiten duten bost kidek osatzen dute erakunde horretako Administrazio Kontseilua, erakunde publikoko lehendakariak gain. Jaurlaritzak izendatu beharko ditu kide horiek, alegia, bi kide Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren proposamenez, eta gainontzeko hirurak, Osasuneko sailburuaren proposamenez.

Horri jarraituz, ente publiko horren Administrazio Kontseiluko kideen aurreko izendapenak eta berritzeak kasuan kasuko dekretuen bidez egin ziren.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta sail bakoitzaren egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen lehendakariaren ekainaren 23ko 18/2024 Dekretuaren bidez ezarritako Eusko Jaurlaritzaren egitura berriaren ondorioz izandako aldaketan eraginez, eta Osasuneko sailburua izendatzeko den lehendakariaren ekainaren 24ko 28/2024 Dekretuaren ondorioz, beharrezkoa da Administrazio Kontseiluaren osaera nominala berritzea.

Horrenbestez, Osasuneko sailburuaren eta Ogasun eta Finantzetako sailburuaren proposamenez, Jaurlaritzaren Kontseiluak 2024ko uztailaren 16an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hau

2024ko uztailaren 19a, ostirala

## XEDATZEN DUT:

Lehenengoa.– Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua ente publikoaren Administrazio Kontseiluko kide-kargutik kentzea Jose Luis Quintas Díez jauna eta Nerea Urien Azpitarte andrea.

Bigarrena.– Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua ente publikoaren Administrazio Kontseiluko kide izendatzea honako hauek:

Enrique Fernando Peiró Callizo jauna, Osasuneko sailburuordea, eta Miren Lorea Bilbao Arteché andrea, Administrazio eta Finantzaketa Sanitarioko sailburuordea, biak Osasuneko sailburuak proposatuta.

Hirugarrena.– Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua ente publikoaren Administrazio Kontseiluko kide gisa berrestea Hernando Lacalle Edeso jauna eta Josu Iñaki Garay Ibáñez de Elejalde jauna, Ogasun eta Finantzetako sailburuak proposatuta.

Laugarrena.– Ondorioz, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua ente publikoaren Administrazio Kontseilua honela osatuta egongo da:

Lehendakaria: Alberto Martínez Ruiz jauna, Osasuneko sailburua.

Enrique Fernando Peiró Callizo jauna, Osasuneko sailburuordea.

Miren Lorea Bilbao Arteché andrea, Administrazio eta Finantzaketa Sanitarioko sailburuordea.

Hernando Lacalle Edeso jauna, Finantza eta Aurrekontuetako sailburuordea.

Josu Iñaki Garay Ibáñez de Elejalde jauna, Aurrekontuen zuzendaria.

## AZKEN XEDAPENA

Dekretu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteizen, 2024ko uztailaren 16an.

Lehendakaria,  
IMANOL PRADALES GIL.

Osasuneko sailburua,  
ALBERTO MARTÍNEZ RUIZ.

Ogasun eta Finantzetako sailburua,  
NOËL D'ANJOU OLAIZOLA.